

*Donostiako Udalean eta
Udalerrrian euskararen
erabilpena normalizatzeko
Arauak*

narrizko Legearen 2.

*. arti
abero
sparr
blizit
a, oronar, gizarte bizi
gizartean erabiltzen
edatu
gizar
n eta
ibili de*

*gizartean erabiltzen
edatu
gizar
n eta
ibili de*

*gizartean erabiltzen
edatu
gizar
n eta
ibili de*

Sarrera

Euskara giza eta kultur aberastasuna da, denok zaintzen eta berreskuratzen saiatu behar duguna.

Hizkuntzak gizartearen onarpena eta gizabanakoentzako atxikimendua behar ditu, guztiengan artean lortu behar ditugun gizartearen kohesio eta integrazioa heltzeko.

Helburu honekin, Donostiako Udalak Arau hauek onartu ditu, gure hirian euskararen erabilpena normalizatzeko.

Eskerrik asko zu ere erantzunkide izateagatik.

Adeitasunez.

GURUTZ LARRAÑAGA
Euskara Patronatuaren Lehendakaria

DONOSTIAKO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILPENA NORMALIZATZEKO ARAUAK

Indarreango legeriak Euskal Komunitate Autonomoaren esku jartzen du euskararen erabilpena garatzeko eta normalizatzeko neurriak erabakitzea, hizkuntz horren bi alderdi hauek kontutan hartuz, alegia, Euskal Herriaren Kultur Ondarearen oinarrizko osagarri izatea, eta beste aldetik, gaztelaniarekin batera, erabilpen ofizialeko hizkuntz Komunitate Autonomoaren lurrealdean.

Euskararen Erabilpenaren Normalkuntzarako Oinarrizko Legeak, 10/1982, abenduaren 24koak, hainbat betekizun ezarri zizkien Euskadiko Administrazio Publikoei, hiritarren hizkuntz eskubideak aitortzearen ondoriozkoak direnak. Ondoren, 250/86, azaroaren 25eko Dekretuak betekizun haien garatzen zehazten ditu, Euskadiko Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetako euskararen erabilpena eta normalizazioa arautuz, eta lanpostuen hizkuntz perfilaren figura sortuz.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, 6/89, uztailaren 6koak, hizkuntz normalizazioari ekiten dio, hizkuntz perfila oinarritzat hartuz, zeina Funtzio Publikoan eta

karrera administratiboan sartzeko prozedurekin zuenki lotua baitago, eta lanpostuen zerrendan, beharrezkotasun-datarekin batera, sartu behar baita beti, halabeharrez.

Aipatutako lege-xedapen horiek garatzen dator 224/89, urriaren 17ko Dekretua, zeinak hizkuntz normalizazioko prozesuei ekiten baitie, erabateko errespetua agertuz Administrazio Publikoen autonomi printzipoari, izan ere, administrazio horiei baitagokie aurreikusitako xedeak iristeko behar diren neurriak hartzea, eta lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntz perfila esleitzeko akordioa onestea.

Aipaturiko lege-xedapen horietan oin hartuz, arauteria honek oinarriak ezartzen ditu, euskararen erabilpenaren normalizazioari buruzko udal ekintza arautzeko, hala administrazioaren barne-erabilerari eta herritarrekiko harremanei dagokienez, nola udalerriaren gizarte bizitzan ere.

Lehen Kapitulua

Xedapen Orokorrak

1. artikulua

Hizkuntza ofiziala

Euskara. Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Donostiako Udaleko Erakunde Autonomoetako eta udalerriko hizkuntza ofiziala da. gaztelania bezala.

2. artikulua

Aplikazio-esparrua

Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege nahiz arauen era Arauteria honetako xedapenen arabera erabiliko dute euskara Donostiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek, nahiz bere barne funtzionamenduan nahiz herritarrekiko hala organismo eta erakunde guztiekin harremanetan, azken helburua euskararen erabileraren normalizazioa delarik.

3. artikulua

Lehentasunezko tratamendua gaztelaniarekiko berdintasun erreala lortzeko

Euskara era gaztelania ofizialak badira ere, hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen zokoratze prozesuaren ondorioz, benetako berdintasunetik urrun daude. Hortaz, eta bi hizkuntza ofizialen benetako berdintasuna lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Donostiako Udalak euskarari.

4. artikulua

Herritarren hizkuntz eskubideak

Euskal Herriko hiritar guztiekin dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ez ezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz. Donostiako Udalak, indarreango legeriak oro har onartutakoenean ildotik honako hizkuntz eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei.

- a) Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b) Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irratia eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz zein gaztelaniaz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileratan euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea.

Bigarren Kapitulua

*Euskararen erabilera
Udalaren barne
funtzionamenduan.*

5. artikulua

Udalarekiko harremanak euskara hutsez ziurtatzea

Hiritarrek Udalarekin beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezaketenez, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi izan dezaten hiritarren aukera bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu Udalak; horietan lehena, aukera hori egin dezan hiritar multzoa identifikatzea izango delarik. Udalarekiko harremanean euskara hutsean zuzenduko zaie Donostiako Udala.

6. artikulua

Laneko hizkuntza

4. eta 5. artikuluetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrik izan daitezen beharrezko diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Donostiako Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

7. artikulua

Enplegatuak euskalduntzea

Aurreko Artikuluetan jasotakoa betetzeko xedezi, udal enplegatuak euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Donostia Udalak, euskararen erabilera eta normalizazioari eta Euskal Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetako hizkuntz plangintzari dagozkien 250/86 eta 224/89 Dekretuetan aurreikusitakoa betetzeko egiten den egitarauaren arabera.

8. artikulua

Harreman elebidunak ziurtatzea

Donostia Udalak, Euskal Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetako Euskararen erabilera eta normalizazioari buruzko 250/1986 Dekretuaren 13. artikuluan eta 12. artikuluaren 4. atalean xedatutakoaren arabera, bere buruari ezartzen dio aipaturiko 12. artikuluan aipatzen diren 5 xedeetatik laugarrena betetza; horretarako, Gizarte-izaerako eta izaera Orokorreko Zerbitzu eta Unitateak gaituko ditu erabat bi hizkuntzetan funtziona dezaten, udal zerbitzu guztietan hiritarrari harreman elebidunak ziurtatzeaz gain.

9. artikulua

Langileen euskalduntze plangintza

Aurreko artikuluan ezarritako xeda betetzearen, Udalak, urtero eta udal langileen ordezkarien lankidetzaz, langileriaren euskalduntze plana onartuko du.

10. artikulua

Lanpostuak betetzeko prozedurak

1.- Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa duten lanpostuak.

1. Funtzionario izaera nahiz behin betirako izaera laborala duten Lanpostuak betetzeko prozeduretan, deia egiterakoan hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa dutenean, aipatu hizkuntza-eskakizuna lehiaketa edo lehiaketa-oposiziora pasatzeko onartua izateko baldintza bezala betetzea exijitu ahal izango da, deiaren oinarri-arauetan ezar dadinari jarraiki, edo funtzionario izatera iritsi aurretiko -edota, hala egokituko balitz, behin-betiko kontratua eskuratu aurretiko- gaitze-ikastaro eta praktika-aldi baten buruan.

Gaitze-ikastaroak eta praktika-aldiak bat eginda, nolanahi ere, ez dute 18 hilabetetatik gora iraungo.

2.- Hizkuntza eskakizuna gaitze-ikastaroen buruan egiaztatzea

2. Hizkuntza-eskakizuna gaitze-ikastaro eta praktika-aldi baten buruan egiaztatu behar den kasuetan, aurrez, hautatze frogen bidez. lanpostua betetzeko exijitutako hizkuntza-eskakizuna baino bi maila beheragokoa egiaztatu beharko da. Eskakizuna 1. edo 2.a denean, hautaketa-probetan euskara merezimendu bezala baloratuko da.

3.- Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez duten lanpostuak

3. Deia egiterakoan hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez duten lanpostu haiek betetzeko prozeduretan, lanpostuaren izaera edota kontratacio denboraldia edozein izanik ere, euskara frogatzea bat egingo da, zeinak, lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren arabera,

hautagaiek duten euskara ezagutza merezimendu bezala baloratuko duen.

Merezimendu-balioaren heinekoa, gainontzeko hautatze-prozeduran lor daitekeen gehienezko puntuazioaren araberakoa izango da, jarraian datorren taulan finkatzen denari jarraiki:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: %5.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: %10.
- 3. hizkuntza-eskakizuna: %15.
- 4. hizkuntza-eskakizuna: %20.

4.- Barne sustapena

4. Aurreko xedapen guztiak aplikagarri izango dira titulazio nagusiagoko taldeetara iristeko barne-promozioko prozeduretan.

3.- Azterketen ardura

5 . Lanpostuak betetzeko prozedura guztietan, Udalak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eskatuko dio euskara azterketak prestatu, egin eta zuzen ditzan.

11. artikulua

Agiriak inskribatzea

Udaletxera sartzen diren edo bertatik ateratzen diren agiriak, idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira Udal Erregistroan, 10/82 azaroaren 24ko Oinarri Legeko 7. artikuluan xedatutakoarekin bat.

12. artikulua

Agiriak inskribatzea

Udalaren bando, buletin, araudi, ordenantza eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, Ordenantza hauetako 20 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

13. artikulua

Euskarazko agirien balio ofiziala

Euskara ere, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala denez, euskaraz idatzitako erabaki, jakinerazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiekin balio ofiziala dute.

14. artikulua

Euskarak lehentasuna

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua derrigor bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

15. artikulua

Aktak

Aktak Udaleko Batzorde Informatiboen, Gobernu Batzordearen eta Plenoaren eta Erakunde Autonomoaren antzeko organoentzako bilkuretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira.

16. artikulua

Euskara lan-hizkuntza

Udaleko organo guztiekin dute -informatiboek nahiz exekutiboek- beren ohizko lan-hizkuntzatzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistemmatikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat aldibereko itzulpen zerbitzua emango da. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinarazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira. beharrezko den kasuetan gaztelerara itzultzearen kalterik gabe.

17. artikulua

Bilkuretako deialdiak

Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretako deialdi guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, ohizko lan hizkuntzatzat euskara aukeratzen duten organoen bilera-deialdiak ezik, hauek euskaraz hutsean idatziko baitira, gaztelaniazko itzulpena eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaielarik.

18. artikulua

Komunikabideekiko harremanak

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, euskarazko mezua lehenetsiko delarik. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar, abisu. eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei. Guzti hori, 20.5 artikuluan xedatuaren kalterik gabe.

19. artikulua

Inprimakiak eta zigiluak

Udalak eta bere menpeko organismoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, bi hizkuntza ofizialetariko bat edozeinetan betetzeko moduan.

Halaber, Udalaren eta bere menpeko organismoen zigilu guztiak, nahiz barne-funtzionamendukoak naiz proiekzio publikoa duten agirietan estanpatzekoak, bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, 20. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

20. artikulua

Euskara bakarrik erabiliko den kasuak

Ondoren aipatzen diren kasuotan euskara bakarrik erabiliko da:

- 1 . Arau hauetako 5. artikuluan aipatu hiritarrei bidaltzen zaizkien gutun, agiri eta jakinarazpenetan. eta beraien eskariz irekitzen diren espedienteetan.
2. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzeko, betetzea dagokien Administrazio Publikoei igortzen zaizkien idatzietan
- 3 . Euskara hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
4. Errotulu, seinale eta antzekotan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.

5. Mezua piktogramez baliatuz adierazi litekeenean.
6. Ezagutzena ematen den ekintzaren izaerak eta destinatarien berezitasunek eskatzen dutenean.
7. Kale, plaza eta edozein leku publikoren izena, bai errotuluetan, baita izen horiek biltzen dituen kaletegi ofizialean ere, Arau hauetako 23 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Nolanahi ere, artikulu honetako 1, 2, 3 eta 6. puntueta aipatzen diren idatziak zinegotziren batek edota Alkate-Lehendakariak berak sinatu beharko balitzte, eta berauek hala eskatuko balute, gero euskara soilean igorriko den idatziaren gaztelaniazko itzulpena erantsiko litzaieke.

21. artikulua

Udal-Egoitzetako errotulazioa

Udaletxeko eta Udalaren menpeko organismoen egoitzetako errotulazioa bi hizkuntza ofizialetan egingo da. Ordenantza honetako 20. artikuluko 4. eta 5. puntueta aipatu kasuetan izan ezik.

Hirugarren Kapitulua

*Euskararen erabilera
Donostiako
udalerrian bultzatu
eta normalizatzeaz.*

22. artikulua

Herritarren ezagupena eta erabilpenaren sustapena

Hiru dira euskararen erabilera Donostiako udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak beregain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua pixkanaka-pixkanaka gehitzea, gaurko euskararen erabilpena ziurtatzea eta nahiz euskaraz dakinenek nahiz ikasten ari direnek erabil dezaten bultzada iraunkorra ematea.

Hori horrela delarik, euskaraz dakineten hizkuntz ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu Udalak, modu iraunkorrean, nola bere ekimenez, hala bere gainetik dauden Erakundeen eta herritarren arteko bitartekotza eginez.

Era berean, eta erabilpena ziurtatu eta bultzatu eta gaurko erabilpen-esparruak handitzeko xedez, ahalegin berezia egingo du euskaraz hitz egiten dakinak alfabetak daitezen.

23. artikulua

1.- Toponimia

1. Donostia udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Donostiako Udalak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; beti ere, euskal, erromantze edo gaztelani jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Donostia udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoен berrikuspena egingo du Udalak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.

2. Trafiko-seinaleak

2. Herri bideetako trafiko seinale eta iragarpenak oro bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira. Nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe.

2. Piktrogramak

Ulergarritasuna piktograma bidez bermatu ahal litekeen kasuetan, euskarazko testua bakarrik izango dute iragarpenek.

24. artikulua

Garraio publikoa

Donostiako garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezen eta mezuaren ulergarritasuna bermatu ahal litekeenean euskara hutsean egin dadin neurri eraginkorrak hartuko ditu Udalak. Era berean, abiapuntua Donostian ez eduki arren udalerri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

25. artikula

1. Dirulaguntzak

Azaroaren 2leko 10/1982 oinarrizko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei. Hortaz, Donostiako Udalak. aipatu xedearen harian eta bere jarduketa eremuan. honako neurriok hartu eta betearaziko ditu:

1. Kultur, kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Donostiako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta betez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da guzti hori, subentzio hartzaileek, subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

2. Udal-instalazioen eta materialen erabilpena

2. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuaren aipatutako baldintza bete beharko dira. Udalak, beraz, frontoia, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

3. Kioskoak, barrakak eta abar.

3. Ferietako, zirkonetako, kioskoetako zein lurzoru publikoan jartzen den edozein instalaziotako idazki, iragarki eta kartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta beraz, instalatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da, eta horrela jakinaraziko zaie jabeei, fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

4. Haborokinak publizitate-zergan.

4. Publizitate-Zerga arautzen duen Ordenantza, edo honen ordez jarriko den Prezio Publikoarena, kuotan haborokinak xedatuko ditu euskara hutsean idatzitako errotuluetan

5. Haborokinak publizitate-zergan.

5. Artikulu honetan xedatua betetzeko, Udalak. Euskararen Patronatuaren bidez. Hiriko bizitza sozial eta kulturalaren alor guztieta euskararen erabilpena sustatzeko kanpainak egingo ditu, bereziki merkataritzako, dendaritzako, lanbideetako, kulturako, kiroletako eta antzeko erakundeengana zuzenduz.

26. artikulua

Irakaskuntza ez unibertsitarioa

Donostian ematen den irakaskuntza ez unibertsitarioan, Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan xedatutako hizkuntz ereduetako eredurik euskaldunenak gero eta gehiago hedatzen saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzean, eta B edo D ereduak aukeratu dituzten haurrak, antolamendu arrazoiak direla medio eredu horietan eskolatu gabe gera ez daitezzen. Era berean, eskola mundua eta eskolaumeen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak

Guzti hori , gurasoen eta haurren aukera erabat errespetatuz eta ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.

27. artikulua

Udal haurtzaindegia

Ama hizkuntza euskara ez baizik gaztelania edo beste edozein hizkuntza duten haurrek euskara nekerik gabe ikasi ahal izan dezaten bizitzako lehen urteak oso garantzitsuak direla kontutan hartuz, Udala haur jaio berriak dituzten gurasoei sistematikoki zuzenduko zaie Udal Haurtzaindegia zerbitzuaren berri emanet eta zerbitzu horrek, euskara ikasteari dagokionean, beren haurrentzat dituen alderdi onak jakinaraziz.

28. artikulua

Helduen euskalduntze-alfabetatzea

Hizkuntza-normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa Donostian euskaraz hitz egiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontutan hartuz, alde batetik, Donostiako biztanleriaren portzentaia handi batek ez dakiela euskaraz eta bestetik, eskoletatik ere ez direla denak euskara behar bezala menderaturik irteten eta, halaber kontutan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eskaintza publikoa indartuko du Udal honek.

29. artikulua

Gizarte-bizitzaren euskalduntzea

Udalerriko gizarte-bizitza euskalduntzearren, Udalak hainbat sektore euskalduntzeko prozesuak bultzatuko ditu, eta haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisiarako ekintzak antolatuko ditu, hirian dauden euskaltegiekin lankidetzen jardunez.

Xedapen Gehigarriak

Jarraipenerako Batzorde Berezia

Lehenengoa.

Hizkuntz normalizazioaren bilakabidearen segizioa egiteko Batzorde Berezia eratuko da non, Udaleko ordezkari politikoez gain, langileen ordezkarien ere esku hartuko baitute, langileriaren euskalduntzeari eta hizkuntz eskakizunen aplikazioari buruzko gaietan.

Batzordearen betebeharra

Bigarrena.

Batzorde horri dagokio Arauteria hau betetzena zuzendutako proposamenak prestatzea, eta baita arauteriaren garapenaren segizio-, kontrol- eta ebaluaketa-lanak.

Aldiro, ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatuko du, eta halaber euskalduntze-prozesuaren edozein fasetan sumatutako atzerapen edo zaitasunak konpontzeko neurri egokiak aztertuko ditu.

Batzordeak horretarako HABEk Udalari hilero bidaltzen dizkion ebaluaketak aztertuko ditu, HABErekin 1990eko martxoaren 26an egindako hitzarmenean xedatutakoarekin bat.

Emaitzen neurketa

Hirugarrena.

Arauteria hau indarrean sartu eta handik bost urteetara. Batzorde honek neurtu egingo ditu hizkuntz normalizazio prozesuan lortutako emaitzak, eta horrela badagokio, Udalari Arauteria berrikusteko proposatuko dio.

Laugarrena.

Langileen ordezkartzari entzun egingo zaio euskalduntze-planak eta euskarako ikastaroetara joateko egutegiak egin baino lehen.

Xedapen Desemailea.

Derogaturik geratzen dira, Ordenantza honen maila bereko edo azpikoak izanik bertan xedatutakoa aurkatzen duten xedapen guztiak.

Donostia, 1991ko maiatzaren 9a.

*Normas para la
normalización del uso del
euska en el Ayuntamiento
y Municipio de
Donostia-San Sebastián*

Introducción

El euskera es una riqueza social y cultural que todos debemos tratar de cuidar y recuperar.

El euskera lingüístico necesita de la aceptación social, del convencimiento de las personas en aras de una integración y cohesión social que debemos construir entre todos.

A tal fin el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián ha aprobado estas normas para la normalización del uso del euskera en nuestra ciudad.

Muchas gracias por tu
corresponsabilidad.

Atentamente.

GURUTZ LARRAÑAGA
Presidente del Patronato de Euskera

NORMAS PARA LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO Y MUNICIPIO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN.

La Legislación en vigor confía a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca la adopción de las medidas encaminadas a asegurar el desarrollo y la normalización del uso del euskara, considerando su doble dimensión de parte fundamental del Patrimonio Cultural del Pueblo Vasco y, junto con el castellano, idioma de uso oficial en el territorio de la Comunidad Autónoma.

La Ley 10/1982 de 24 de diciembre, Básica de Normalización del uso del Euskera, vino a establecer determinadas obligaciones a las Administraciones Públicas de Euskadi a consecuencia del reconocimiento de los derechos lingüísticos de los ciudadanos, que posteriormente se desarrollan en el Decreto 250/86 de 25 de noviembre, que regula el uso y normalización del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi y crea la figura del perfil lingüístico de los puestos de trabajo.

La Ley 6/89 de 6 de julio , de la Función Pública Vasca , aborda la normalización lingüística, que descansa sobre la base del perfil lingüístico directamente relacionado con los procedimientos de acceso a la Función Pública y carrera administrativa, y perfiles que junto con la fecha de su preceptividad han de incluirse necesariamente en la relación de puestos de trabajo.

El desarrollo de las disposiciones legales citadas se efectúa a través del Decreto 224/89, de 17 de octubre, que aborda la regulación de los procesos de normalización lingüística, con absoluto respeto al principio de autonomía de las Administraciones Pùblicas, a quien corresponde tomar las medidas necesarias para alcanzar los objetivos previstos, así como la adopción del acuerdo de asignación a cada puesto de trabajo de su correspondiente perfil lingüístico.

En base a las disposiciones legales citadas, la presente normativa establece las bases de la actuación municipal en aras de normalizar el uso del euskera tanto en el funcionamiento interno de la administración y en sus relaciones con el ciudadano, como en la vida social del municipio.

Capítulo Primero

Disposiciones Generales

Artículo 1.

Lengua oficial

El euskera, lengua propia del País Vasco, es, como el castellano, lengua oficial del Ayuntamiento, Organismos Autónomos y Municipio de Donostia-San Sebastián.

Artículo 2.

Ámbito de aplicación

El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y sus Organismos Autónomos harán uso del euskera, tanto en el ámbito de funcionamiento interno como en el de las relaciones con los ciudadanos y el conjunto de organismos e instituciones, con arreglo a las leyes y normas vigentes dictadas con carácter general y a las disposiciones recogidas en la presente Normativa, siendo objetivo último la normalización del uso del euskera.

Artículo 3.

Tratamiento preferente para lograr la igualdad real con el castellano

El euskera y el castellano, aun siendo, ambas, lenguas oficiales. están lejos de encontrarse en un plano de igualdad real. Por lo tanto, y con el objetivo de lograr la igualdad real de las dos lenguas oficiales, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián dará un tratamiento diferenciado y preferente al euskera.

Artículo 4.

Derechos lingüísticos de los ciudadanos

Todos los ciudadanos del País Vasco tienen derecho tanto a conocer como a hacer uso oral y escrito de ambas lenguas oficiales. En consecuencia, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, con el mismo tenor de los recogidos en general por la legislación en vigor, reconoce expresamente a los ciudadanos los siguientes derechos lingüísticos:

- a) Derecho a mantener relaciones orales y/o escritas con el Ayuntamiento y con cualquier organismo dependiente del mismo en euskera o castellano.
- b) Derecho a realizar cualquier tipo de enseñanza organizada y/o gestionada por el Ayuntamiento en las dos lenguas oficiales.
- c) Derecho a recibir en euskera o castellano las publicaciones del Ayuntamiento y todo tipo de notificación o disposición de la que dé cuenta el Ayuntamiento mediante prensa diaria, periódica, radio o cualquier otro medio de comunicación.
- d) Derecho a intervenir en euskera o castellano en cualquier reunión celebrada en el Ayuntamiento.

Capítulo Segundo

Uso del euskera en el funcionamiento interno del Ayuntamiento

Artículo 5.

Garantizar las relaciones en euskeru con el Ayuntamiento

Como quiera que los ciudadanos pueden relacionarse con el Ayuntamiento en la lengua oficial que a ese efecto elijan, el Ayuntamiento adoptará las medidas oportunas en orden a garantizar la opción de los ciudadanos que deseen mantener sus relaciones con el Ayuntamiento exclusivamente en euskera; siendo la primera de dichas medidas la identificación del grupo de población que realice dicha opción. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián se dirigirá únicamente en euskera a quienes deseen mantener su relación con el Ayuntamiento Únicamente en euskera.

Artículo 6.

Lengua de trabajo

El Ayuntamiento adoptará las medidas necesarias a fin de que los derechos reconocidos en los artículos 4º y 5º sean reales y efectivos. Por lo tanto, el euskera será no sólo lengua para dar servicio a los ciudadanos sino también lengua de trabajo en el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, con arreglo a lo dispuesto en la presente Normativa.

Artículo 7.

Euskaldunización de los empleados

Con el fin de cumplir con lo dispuesto en los artículos anteriores, el Ayuntamiento adoptará las medidas oportunas para proceder a la euskaldunización de los empleados, conforme a la programación que se establezca para el cumplimiento de lo previsto en los Decretos 250/86 y 224/89, relativos a uso y normalización del uso del euskera y su planificación en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca.

Artículo 8.

Garantizar las relaciones bilingües

El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 13 y apartado 4 del artículo 12 del Decreto 250/1986, sobre uso y normalización del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece para sí la consecución del objetivo 4 de los cinco que se prevén en el citado artículo 12, para lo cual habilitará a los Servicios y Unidades Administrativas de carácter General y Social, para que funcionen totalmente de un modo bilingüe además de garantizar en todos los servicios municipales las relaciones bilingües con el ciudadano.

Artículo 9.

Plan de euskaldunización del personal

Al objeto de alcanzar el objetivo establecido en el párrafo anterior, el Ayuntamiento anualmente, en colaboración con los representantes de los trabajadores, aprobará el plan de euskaldunización del personal.

Artículo 10.

Procedimientos de provisión de plazas

1.- Perfil lingüístico preceptivo en la fecha de la convocatoria

1. En los procedimientos de provisión de plazas, etc.. de carácter funcionarial o laboral indefinido, en que el perfil lingüístico resulte preceptivo en la fecha de la convocatoria, el cumplimiento de dicho perfil podría ser exigido, según se determine en las Bases de la convocatoria. como requisito para ser admitido al Concurso o Concurso-Oposición, o bien al cabo de un curso de formación y período de prácticas, previo al acceso a la condición de funcionario o, en su caso, a la formalización del contrato indefinido. La duración acumulada del curso de formación y período de prácticas no podrá exceder, en ningún caso. de 18 meses.

2. Acreditación del perfil lingüístico al cabo de un cursillo de formación

2. En los casos en que el cumplimiento del perfil lingüístico deba acreditarse al cabo de un curso de formación y periodo de prácticas, será necesario haber acreditado previamente, a través de las pruebas selectivas, el cumplimiento del perfil inferior en dos niveles al exigido para la cobertura de la plaza. Cuando el perfil sea el 1º o 2º en las pruebas selectivas correspondientes se valorará el euskera como mérito.

3.- Perfil lingüístico no preceptivo en la fecha de la convocatoria

3. En los procedimientos de provisión de plazas en que el perfil lingüístico no resulte preceptivo en la fecha de convocatoria, sean cuales fueren el carácter de la plaza y el período de contratación, se realizará una prueba de euskera que, en relación al perfil lingüístico del puesto de trabajo, cuantificará como mérito los conocimientos de euskera de los aspirantes. El valor del mérito se establecerá a tenor de la puntuación máxima alcanzable en el resto del proceso selectivo, siguiendo lo fijado en la siguiente tabla:

1º. perfil lingüístico: 5%

2º. perfil lingüístico: 10%

3º. perfil lingüístico: 15%

4º. perfil lingüístico: 20%

4. En los procesos de promoción interna tanto para la provisión de puestos de trabajo como para el acceso a grupos de titulación superior, se oirá a la representación de los trabajadores, con carácter previo, a la concreción en las Bases de lo dispuesto en los tres apartados anteriores de este artículo .

5 . En todos los procedimientos de provisión de plazas, el Ayuntamiento solicitará del Instituto Vasco de Administración Pública la confección, realización y corrección de los exámenes de euskera.

Artículo 11.

Inscripción de documentos

Los documentos a los que se dé entrada o salida en el Ayuntamiento serán inscritos en el Registro Municipal en la lengua o lenguas en la que se hallen escritos, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre.

Artículo 12.

Publicaciones

Todo bando, boletín, reglamento, ordenanza y resolución del Ayuntamiento se publicará en las dos lenguas oficiales, sin perjuicio de lo establecido en el Artículo 20 de estas Normas.

Artículo 13.

Valor oficial de los documentos escritos en euskera

Siendo el euskera, al igual que el castellano, lengua oficial, todos los acuerdos, notificaciones, disposiciones, certificados y demás documentos escritos en euskera tienen valor oficial.

Artículo 14.

Euskera prioritario

En los casos en que, con arreglo a la normativa en vigor, el mensaje haya de ser comunicado en las dos lenguas oficiales, se dará prioridad al de euskera.

Artículo 15.

Actas

Los textos originales de las actas de las reuniones de Comisiones Informativas, Comisión de Gobierno o Pleno del Ayuntamiento u Organos similares de los Organismos Autónomos Municipales, serán redactadas en la lengua oficial en que se haya celebrado la reunión correspondiente.

Artículo 16.

Euskera lengua de trabajo

Todos los órganos municipales -tanto informativos como ejecutivos- tienen derecho a optar por el euskera como lengua de trabajo habitual. Las reuniones de los órganos que adopten ese acuerdo se realizarán sistemáticamente en euskera, y aquellos miembros que no entiendan euskera dispondrán del servicio de traducción simultánea. De igual manera, todas las actas, cartas, notificaciones y documentos de dichos órganos serán redactados en euskera, sin perjuicio de que en los casos en que sea necesario se realice la traducción al castellano.

Artículo 17.

Convocatorias para reuniones

Todas las convocatorias para las reuniones de órganos informativos y ejecutivos municipales serán redactadas en las dos lenguas oficiales, excepto las que correspondan a los órganos que hayan optado por el euskera como lengua de trabajo habitual, ya que éstas serán redactadas únicamente en euskera, siendo remitida la traducción de la misma sólo a los miembros que así lo soliciten.

Artículo 18.

Relaciones con los medios de comunicación

Los anuncios que se publiquen en los medios de comunicación se darán a conocer en las dos lenguas oficiales, aún cuando se le dará prioridad al mensaje en euskera. De la misma forma, las notas, avisos, e informaciones que se envíen a los medios de comunicación también serán remitidas en euskera y castellano, y se solicitará de los mismos que den a conocer dichas noticias en ambas lenguas. Todo ello, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 20.5.

Artículo 19.

Impresos y sellos

Todos los impresos de los que haga uso el Ayuntamiento y los órganos de pendientes del mismo se imprimirán redactados en euskera y castellano, de forma que puedan ser cumplimentados en cualquiera de las dos lenguas. De igual forma, todos los sellos del Ayuntamiento y de sus órganos dependientes, tanto los que hayan de ser estampados en documentos de orden interno como en los que tengan proyección pública, serán escritos en las dos lenguas oficiales, sin perjuicio de lo dispuesto en el Artículo 20 de las presentes Normas.

Artículo 20.

Casos en los que únicamente se utilizará el euskera

Se utilizará únicamente el euskera en los casos que, a continuación se relacionan:

1. En las cartas, documentos y notificaciones que se envíen a los que se refiere el artículo 5 de las presentes Normas, y en los expedientes a los que se dé apertura a petición de los mismos.
2. En los escritos que se remitan a las Administraciones Públicas a las que corresponda cumplir la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, de normalización del uso del euskera.
3. En los escritos enviados a Organismos que tengan como lengua oficial el euskera.

4 Al escribir en rótulos, señales y similares, términos cuya grafía sea muy semejante en euskera y en castellano.

5. Cuando el mensaje pueda ser transmitido mediante pictogramas

6. Cuando así lo requieran el carácter de la actividad a comunicar y las particularidades del destinatario.

7. En los nombres de calles, plazas o cualquier lugar público, tanto en los rótulos, como en el callejero oficial que recoge dichos nombres, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 23 de las presentes normas.

En cualquier caso, si los escritos mencionados en los puntos 1, 2, 3 y 6 del presente artículo debieran ser firmados por algún Concejal o por el propio Alcalde-Presidente, y en el supuesto de que los mismos así lo solicitaran, se les adjuntaría la traducción al castellano del escrito que, posteriormente, se remitirá únicamente en euskera.

Artículo 21.

Rotulación de dependencias municipales

La rotulación de las dependencias del Ayuntamiento y de los organismos dependientes del mismo se realizará en las dos lenguas oficiales, excepto en los casos mencionados en los puntos 4 y 5 del artículo 20 de las presentes Normas.

Capítulo Tercero

Promoción y normalización del uso del euskera en el Municipio de Donostia-San Sebastián

Artículo 22.

Promoción del conocimiento y del uso de los ciudadanos

Tres son los objetivos que se propone el Ayuntamiento en lo referente a la normalización del uso del euskera en el municipio de Donostia-San Sebastián: aumentar paulatinamente el número de ciudadanos que conozcan euskera, asegurar el uso actual del euskera e impulsar constantemente el uso del euskera tanto por parte de los que conocen dicha lengua como por parte de los que la están aprendiendo.

Siendo esto así, el Ayuntamiento llevará a cabo de forma constante acciones encaminadas a modificar los hábitos lingüísticos de los vascoparlantes. bien sea por iniciativa propia, bien realizando una tarea mediadora entre las Instituciones de carácter superior y los ciudadanos.

De igual manera, y con el fin de asegurar y promover el uso del euskera y ampliar el ámbito de utilización actual del mismo. realizará un esfuerzo especial para que quienes sepan hablar euskera se alfabeticen.

Artículo 23.

1.- Toponimia

1. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián fijará, dentro de su ámbito competencial, el nomenclador oficial de calles, caminos, barrios, plazas, montes, ríos, regatas y todo tipo de topónimia en general, respetando siempre el origen vasco, romance o castellano y utilizando la grafía académica propia de cada lengua. Así, el Ayuntamiento realizará la recopilación de los topónimos del municipio de Donostia-San Sebastián y la revisión de los que en la actualidad se encuentran recopilados, bajo la dirección del Organismo competente e dicha materia y con arreglo a las directrices emanadas de la Real Academia de la Lengua Vasca.

2.- Señales de tráfico

2.- Toda señal y anuncio de la vía pública se redactará en las dos lenguas oficiales. Aún así, se dará prioridad al texto en euskera, sin perjuicio de garantizar la comprensibilidad y de respetar las normas internacionales.

3.- Pictogramas

3. En los casos en los que pueda garantizarse la inteligibilidad mediante pictogramas, el texto de los anuncios será redactado únicamente en euskera.

Artículo 24.

Transporte público

El Ayuntamiento adoptará medidas efectivas a fin de que todo impreso, aviso y notificación realizado en el ámbito del transporte público de Donostia-San Sebastián sea realizado en euskera y castellano y solamente en euskera en los casos en los que se pueda garantizar la comprensibilidad de los mismos. De igual manera, se solicitará a los responsables de los transportes públicos que aun no teniendo su punto de partida en Donostia-San Sebastián realicen paradas en el municipio, adopten las oportunas medidas en ese mismo sentido.

Artículo 25.

1. - Subvenciones

Con arreglo a lo dispuesto en los artículo 26 y 27 de la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, corresponde a los poderes públicos adoptar las medidas pertinentes para que se haga uso del euskera en todos los ámbitos sociales y en la publicidad. así como para que aumente su presencia en la vida social en general.

Por lo tanto, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián. al hilo del citado objetivo y dentro de su ámbito de actuación, adoptará y hará que se cumplan las siguientes medidas:

1. En el momento de conceder subvenciones a sociedades de carácter cultural, deportivo o recreativo también se tendrá en cuenta el criterio lingüístico. En consecuencia, tanto las sociedades y entidades como las personas físicas o jurídicas que reciban algún tipo de subvención de Ayuntamiento, tendrán que redactar y dar a conocer en euskera o en ambos idiomas los escritos, anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen en su actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la propaganda, bien sea oral o escrita, que deberá ser realizada en euskera o en ambas lenguas. Asimismo, los mensajes emitidos mediante megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en ambas lenguas.

En las comunicaciones que se realicen en euskera y castellano, y sobre todo en las realizadas oralmente, se le dará prioridad al euskera, ya que quienes pudieran entender la comunicación en euskera son personas bilingües.

Todo ello conformará uno de los requisitos para poder recibir subvenciones, debiendo el destinatario, cumplir obligatoriamente dicha condición para poder percibir la

subvención

2. - Uso de las instalaciones y materiales municipales

2. De igual forma, para poder hacer uso de instalaciones o material municipal habrá que dar cumplimiento a las condiciones anteriormente citadas . El Ayuntamiento, por lo tanto, a la hora de conceder la autorización para el uso de frontón, vallas, tablados y cualquier otro tipo de instalación o material municipal, dará a conocer a los interesados dicha condición lingüística, y esta referencia a la lengua será una de las que haya que verificar antes de la resolución de la fianza.

3. - Quioscos, barracas, etc.

Los escritos, anuncios y carteles de las ferias, circos, quioscos o cualquier otra instalación en terreno público serán dados a conocer en euskera o en ambas lenguas, y, por lo tanto, entre las condiciones para conceder la autorización para su instalación también será recogida y así se les comunicará a sus propietarios, debiendo verificar el cumplimiento de la misma previamente a la devolución de la fianza.

4. - Bonificaciones en el impuesto de publicidad.

4. La Ordenanza Reguladora del Impuesto de Publicidad o en su caso la del Precio Público que le sustituya contemplará bonificaciones de la cuota para aquellos rótulos redactados únicamente en euskera.

5. - Campañas en favor del euskera

5 . A fin de dar cumplimiento a lo establecido en este artículo, el Ayuntamiento, a través del Patronato de Euskera, efectuará campañas de promoción del uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social y cultural de la Ciudad, dirigiéndose especialmente a entidades de tipo mercantil, comercial, profesional, cultural, deportivas. etc.

Artículo 26.

Enseñanza no universitaria

Ayuntamiento realizará actividades específicas encaminadas a la progresiva extensión en el ámbito de la educación no universitaria de Donostia-San Sebastián de los modelos lingüísticos que mayores garantías de euskaldunización ofrezcan entre los modelos dispuestos en el Decreto 138/1983, de 11 de Julio, sobre todo al dar comienzo a los plazos de matriculación, y a fin de que los niños que hayan optado por los modelos B o D no dejen de realizar su escolarización en los mismos por motivos de organización. De igual manera, el Ayuntamiento promoverá actividades complementarias para euskaldunizar el ambiente en el mundo escolar y entre los escolares.

Todo ello se desarrollará respetando plenamente la elección que realicen padres y niños y en colaboración con los centros escolares.

Artículo 27.

Guarderías Municipales

Teniendo en cuenta que para los niños cuya lengua materna no es el euskera, sino el castellano o alguna otra lengua, los primeros años de su vida tienen gran importancia en el aprendizaje sin dificultades del euskera, el Ayuntamiento se dirigirá sistemáticamente a los padres de niños recién nacidos dando a conocer el servicio que ofrecen las Guarderías Municipales e informando de los aspectos positivos que, en relación con el aprendizaje del euskera, presentan las mismas.

Artículo 28.

Euskaldunización y alfabetización de adultos

Siendo uno de los objetivos principales de este Ayuntamiento aumentar en Donostia-San Sebastián el número de personas que hablan euskera y alfabetizar a aquellas que ya puedan hablarlo y teniendo en cuenta por una parte que un gran porcentaje de la población de Donostia-San Sebastián no sabe euskera, y, por la otra, que no todos finalizan el proceso escolar dominando el euskera, y, así mismo, teniendo en cuenta que la euskaldunización es una responsabilidad pública, este Ayuntamiento fortalecerá la oferta pública de euskaldunización y alfabetización de adultos.

Artículo 29.

Euskaldunización de la vida social

Al objeto de euskaldunizar la vida social del municipio, el Ayuntamiento promoverá procesos de euskaldunización de distintos sectores, organizará actos culturales, y de esparcimiento en euskera para niños, jóvenes y adultos y a tal fin colaborará con los euskaltegis de la ciudad.

Disposiciones Adicionales

Comisión especial de seguimiento

Primera.

Se constituirá una Comisión Especial de seguimiento del proceso de normalización lingüística en la que participarán además de los representantes políticos del Ayuntamiento, los de los trabajadores, en cuanto se refiera a la euskaldunización del personal y aplicación de los perfiles lingüísticos.

Funciones de la comisión

Segunda.

Corresponderá a esta Comisión la elaboración de propuestas encaminadas al cumplimiento de la presente normativa, así como las labores de seguimiento, control y evaluación de su desarrollo.

Periódicamente, hará evaluación del grado de cumplimiento de los objetivos fijados, y estudiará las medidas pertinentes para la subsanación de los retrasos o dificultades que se detectaran en cualquier fase del proceso de euskaldunización.

A tal fin analizará las evaluaciones que mensualmente habrá de remitir el HABE al ayuntamiento, conforme prevé el convenio de colaboración suscrito con el IVAP el 26 de Marzo de 1990.

Evaluación de los resultados

Tercera.

A los cinco años de la entrada en vigor de la presente Normativa, efectuará una evaluación global sobre los resultados obtenidos en el proceso de normalización lingüística. procediendo, en su caso, a proponer al Ayuntamiento la revisión de la Normativa.

Representación de los trabajadores

Cuarta.

Se oirá a la representación de los trabajadores, previamente a la elaboración de los planes de euskaldunización y calendarios de asistencia a cursos de euskera.

Disposiciones Adicionales

Quedan derogadas cuantas disposiciones que, siendo de igual o inferior rango a estas Normas, se opongan a lo dispuesto en las mismas.

Donostia-San Sebastián, 9 de mayo de 1991